**AIZKARDIREN II. ARGAZKI RALLY-A ETZI**

Villabonan egingo dute lau orduz, Aizkardi Mendi Elkarteak antolatuta; edonork har dezake parte bertan › 5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

Ostirala
2009-11-13

VII.URTEA 1.826.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo egin zuten Babarrunaren Asteko aurkezpena, Emeterio Arrese plazako baratzen ondoan. ESTI EZEIZA

# MOTORRAK BEROTZEN BIHARTIK AURRERA

**TOLOSA** Babarrunaren Asteari ekingo diote hilaren 19an; biharko ere Abelgorri Lehiaketa eta mus txapelketa antolatu dituzte 2

# Parranda giroan igaro dute gazteek euren eguna

**AMASA** Gazte egunaren ondoren txikien txanda izango da, Pirritx eta Porrotxen emanaldiarekin 5



Urtero bezala, umore onari gogor eutsi zioten gazteek. E. MAIZ

## 'Egizu lo, Tartalo!' antzezlana gaur ikusgai, Kultur Etxean

**ALEGIA** Udazkenean kulturaren baitan izango da emanaldia, 17:30ean 3

**IÑAKI ARRATIBEL** KIROL MEDIKUA

## «Kirolariek ondo jan dezakete elikadura astunetatik haratago»



N. LATABURU

**TOLOSA** Kirolarientzat dieta atseginak erakusten ditu tolosarraren 'Comer correr' liburuak 4

## Kultur Truke Hamabostaldian filmak, hitzaldiak eta tailer ugari

**IBARRA** Hilaren 17tik 29ra bitarte antolatu du Udaleko Kultura Sailak 6



# Babarrunaren Astearen atarian, mus txapelketa eta Abelgorri Lehiaketa

**Kultura** » Hilaren 19tik 22ra ospatuko da babarruna ardatz duen ekimena; ekoizleen hitzetan, «inoiz baino gehiago da aurten».

**ESTI EZEIZA**

Tolosako babarrunaren eta baserritarrek urte guztian egindako lanaren erakusleiho da hemendik egun gutxira ospatuko den Babarrunaren Astea. Atzo aurkeztu zituzten, lekale preziatu hau ardatz hartuta, datozen egunetan burutuko diren ekimenak. Lehendabiziko ekitaldiak, aperitibo gisa bihar bertan izango dira. Dena den, hilaren 19tik 22ra bitartean ospatuko da Babarrunaren Astea.

Tolosako lekale ospetsuaren etorkizuna bermatua dagoela adierazten duten datuak aurkeztu zituzten atzo babarrunaren ekoizleek. Izan ere, Mari Karmen Iradi elkarteko lehendakariak agertu zuenez, «elkartea sortu zenez geroztik, aurten, inoiz erein den metro karraturik gehiena erein dugu, inoiz jaso izan dugun babarrun kopururik handiena jasoko dugularik, beti bezain gozoa eta dizdiratsua».

Inoiz baino lur eremu zabalagoak erabili dira babarruna egiteko. Denera, 26 hektareatan erein da, iaz baino sei hektarea gehiagotan. Hala, aurreikuspenen arabera, 25.000 kilo jasoko dira, joan den urtean baino 10.000 kilo gehiago. Elkartekoek azaldutakoaren arabera, horren arrazoietako bat da, «aurten elkartera kide berriak gehitu dira, eta ekoizle indartsuak dira hauek, sail handiak landu baitituzte». Bestalde, krisi ekonomikoak ere eragina izan duela nabarmendu zuten. Honek, zenbait lagun nekazaritzara hurbiltzeko balio izan baitu.

**Asteburu honetan, mus eta frisoi txapelketa**

Gipuzkoako XL. Abelgorri Lehiaketako bigarren zatia jokatuko da bihar Ferialekuan. Urriaren 3an jokatutako lehendabizikoan, blonda, pirenaika eta limousin arrazako sariak eman zituzten, eta bihar Frisoi, Suitza eta Txarolesen txanda izango da. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, goizeko zortzietarako eraman beharko dituzte abereak hara.

IX. Babarrunaren mus azkarreko txapelketa ere jokatuko da bihar Beotibar pilotalekuan. 16:30ean hasiko da norgehiagoka, eta iluntzera arte luzatuko da. Lehenengo zortzi sailkatuek sari garrantzitsuak eramango dituzte. Irazabazleek 1.500 euro eramango dituzte etxera, baita garaikurra eta kilo bat babarrun ere. Izen-emateak bihar 16:30ak arte onartuko dira. Aldez aurretik egin nahi izanez gero bi aukera daude, 943-65 14 70 telefono zenbakira deitzea edo *jeub@euskalnet.net* helbidera idaztea.

**Tolosako Babarrunaren Azoka**

Babarrun Astearen baitan, bi dira egun berezienak. Lehendabizikoa, datorren larunbatekoa izango da, bertan ospatuko baita Tolosako Babarrunaren Azoka, ekoizleen lehiaketa eta lekariaren enkantea, besteak beste.

Hilaren 21ean, Triangulo plazan, 09:00etan hasiko da babarrunaren azoka tradizionala. Tolosako babarrunarekin batera, honekin lotura zuzena duten beste hainbat produktu ere erosi ahal izango dira: Ibarrako piparrak, odolkiak, gazta, ardoa...

Egun horretan bertan, Babarrunaren kofradiaren eskutik, aukera izango da Tolosako babarruna jateko doan. Horretarako, 25 kilo babarrun baino gehiago prestatuko dituzte, eta 800 razio baino gehiago banatuko dituzte.

Tolosako babarrunaren ekoizleen lehiaketa ere hilaren 21ean jokatuko da. Hau, 08:00etan hasiko da. Roberto Ruiz, Felix Belaunzaran eta Peio Doyharzabal sukaldariak arduratuko dira parte-hartzaileek aurkeztutako babarrunak prestatzeaz. Denak batera sukaldatuko dituzte, eta ura, gatza eta olioa besterik ez dute erabiliko horretarako. Ondoren epaimahaiak erabakiko du zein den 2009ko babarrunik onena. Iaz Juan Ugartemendia albizturtarra izan zen garaile. 12:30ean hasiko da sari banaketa. Alde batetik, Babarrunaren Mus Azkarreko txapelketakoak sarituko dira, eta ondoren, Babarrunaren Ekoizleen lehiaketakoak.

Aurten ere, irabazlearen uzta horretako lakari bat (3 kilo) enkantean jarriko da. Hau, 13:15 aldera izango da. Iaz Tolosako Fronton Jatetxeko sukaldari den Roberto Ruizek erosi zuen, 2.015 eurogatik hain zuzen ere. Bertan ateratako dirua, oraingoan ere, Escuela Diocesana del Colegio San Paul de Togo (Mali)ri bidaliko zaio.

Babarrun lehiaketarekin batera, tradizio handiko norgehiagoka da Txinparta elkartean (Arostegieta kalea) jokatzen dena. Bertan jokatuko da XI. aldiz, Txapela nork hobeto jantzi izeneko lehiaketa. Elkarteko kideek azaldutakoaren arabera, aurten, Udalaren laguntzarik jaso ez badute ere, ekimenarekin jarraitzea erabaki dute. 11:30ean hasiko da, eta bi orduko iraupena izango du gutxi gorabehera. Izen-ematea doakoa izango da eta parte-hartzaile guztiek opari bat jasoko dute. Bestalde, neska nahiz gizonen atalean, irabazleak 60 euro eramango ditu, bigarrenak 40 eta hurrengoak 30. Baita, txapela bana ere. Txinpartakoek aipamen berezia egin nahi izango diote aurtengoan ere, Boinas Elosegiri, emandako laguntzagatik.

Ekitaldi hauez gain, Ezpeleta elkartearen eskutik babarrun jateak izango dira Alde Zaharreko edarigietan. Bisita Gidatuak ere eskainiko ditu Tolosaldea Tourrek Alde Zaharretik barrena.

**Amaitzeko, lehiaketa gastronomikoa eta bazkaria**

Babarrun Asteari bi ekitaldirekin emango zaio amaiera hilaren 22an. Gure Kaiola elkarteak antolatuta, babarrunaren lehiaketa gastronomikoa izango da. Aurten gainera, estreinakoz, Triangulo plazan jokatuko da eta ez Ferialekuan. Ondoren, Zerkausian, 500 lagunentzat herri bazkaria izango da.




Atzo goizean Emeterio Arrese plazako baratzaren ondoan aurkeztu zute aurtengo Babarrunaren Astea. E. EZEIZA

## » BABARRUN ASTEKO EGITARAUA

**Azaroak 14, bihar**

▪ **Gipuzkoako XL. Abelgorri Lehiaketa.** Ferialekuan jokatuko da goiz guztian zehar.

▪ **Mus azkarreko txapelketa.** Beotibar pilotalekuan izango da 16:30etik aurrera. Sari banaketa hilaren 21ean egingo da, 12:30ean, Triangulo plazan.

**Azaroak 19, osteguna**

▪ **Tolosako Babarrunaren inguruko topaketak.** Tolosako Babarrunaren Kofradiak eta Hotel Londresek antolatuta, Tolosako babarrunaren eguna egingo da Hotel Londresen.

**Azaroak 21, larunbata**

▪ **Babarrunaren Azoka.** 08:00etan hasiko da Triangulo plazan egingo den azoka berezia.

▪ **Babarruna dastatzeko aukera.** Babarrunaren Kofradiaren eskutik, Tolosako babarrun razioak banatuko dituzte 12:00etan.

▪ **Babarrunaren ekoizleen lehiaketa.** 08:00etan hasiko da txapelketa, Trianguloan. Sari banaketa 13:00etan izango da.

▪ **Lakari bat babarrun enkantean.** 13:15ean, ekoizleen lehiaketako sariak banatu eta gero, Triangulo plazan bertan, enkantea izango da. Irabazi duen babarrun horretatik lakari bat eskainiko da.

▪ **Babarrun jatea.** Ezpeleta elkarteko ostalarien eskutik, 14:00etatik aurrera, Alde Zaharreko edaritegietan babarrun jatea izango da.

▪ **Bisita gidatuak.** Larunbatean., 17:00etan eta igande goizean, 11:00etan, bisita gidatuak egingo dira, Alde Zaharretik barrena. Hiru azoka guneak bisitatuz, eta partehartzaileen artean erosketak egiteko poltsa berrerabilgarriak banatuko dira.

**Azaroak 22, igandea**

▪ **Babarrunaren lehiaketa gastronomikoa.** Gure-Kaiola elkartearen eskutik, Triangulo plazan jokatuko da, 08:00etan hasita. Sari banaketa 13:00etan izango da.

▪ **Herri bazkaria.** 14:30etik aurrera, Gure Kaiolaren eskutik, herri bazkaria izango da Zerkausian. 500 lagunentzat eta 22 euroko prezioan.

## Iragarki laburrak

**SALGAI**

▪ **Ahuntz nanoak.** Ahuntz nanoak salgai, Hernanin. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 650 86 56 26ra.

**EROSTEKO**

▪ **Eskopeta.** Baztertuta dagoen eskopeta paralela bat erosiko nuke. Arraiaduna ahal baldin bada. Deitu 679 16 66 65era.

Akademia Pausoka
Hizkuntzak:
Arabiera, italiera, frantsesa eta ingelera
Maila guztiak
Irakasle gaituak
Errefortzu eskolak:
Letrak eta zientziak
Adin guztiak
Eguneroko jarraipena
Tamaina txikiko taldeak
Martin J. Iraola, 2 - behea
TOLOSA • Tel.: 943 67 24 48

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 14 partidetatik 11 irabazi dituzte Aurrera-Saiaz elkarteko pilotariek

**Pilota** » Asteburu honetan bost partida izango dituzte etxean; guztiak Tolosako Beotibarren jokatuko dituzte.

ERREDAKZOA

Aurrera-Saiaz pilota elkartekoek garaipen sorta ederra lortu zuten aurreko asteburuan. 15 partida jokatu zituzten, horietatik bat elkarteko bi talderen artekoa. Beste 14 partidetatik 11 irabazi zituzten.

Asteburu honetan ere hainbat partida izango dituzte Gipuzkoako Txapelketan. Zehaztuta dauden partidetatik bost etxean izango dira, Tolosako Beotibar frontoian, hain zuzen. Bi partida gaur izango dira, 20:30ean hasiko den jaialdian. Jubeniletan banaka eta lehen mailako jubenilek jokatuko dituzte, lehen eta bigarren partidak, hurrenez hurren. Biharko hiru partida izango dira, 10:00etan hasiko den jaialdian. Lehenengoan lehen mailako kadeteak ariko dira, bigarrengoan jubenil mailan banaka eta hirugarrenean bigarren mailako jubenilak.

Etxetik kanpo bost partida jokatuko dituzte Aurrera-Saiazekoek eta gaur izango dira guztiak. Azoitian bi partida izango dituzte, 19:00etan hasita. BErtan ariko dira nagusi mailan banaka eta bigarren mailako nagusien bikotea. Nagusietan banaka ere ariko dira Eibarren, 20:15ean, eta Zegaman, 20:00etan. Lehen mailako nagusien bikoeta Ibaetan jokatuko du 19:15ean.

## L Laburrak

### Herri krosean izena emateko aukera, zabalik

**IKAZTEGIETA** ● Etzi XIX. herri krosa izango da goizean, herrigintza kultur kirol elkarteak antolatuta. 10:45ean umeak abiatuko dira eta 11:00etan helduak. Izena dagoeneko eman daiteke *www.herrikrossa.com* helbidean. Horretarako 8 euro ordaindu beharko dira. Egunean bertan ere izango da horretarako aukera, 09:00etatik 10:30era. Kasu honetan 10 euro izango dira.

### 'Uxola'-ri omenaldia egingo diote gaur

**TOLOSA** ● Estanislao Urruzola *Uxola*ren jaiotzaren mendeurreneko omenaldia izango da gaur: 19:00etan oroitarriaren inaugurazioa eta 19:30ean *Bidegileak* bildumako Maddi Soroaren liburuaren aurkezpena.

# 'Egizu lo, Tartalo!' gaur Udazkenean kulturan

**Alegia** » Dar-dar taldekoak 17:30ean igoko dira Kultur Etxeko oholtzara; 4 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduriko ikuskizuna da.

ERREDAKZIOA

Hasiera batean horrela aurreikusita ez bazegoen ere, gaur Dar-dar taldearen *Egizu lo, Tartalo* antzezlana izango da ikusgai, Udazkenean kulturan, Kutxak babestua; 17:30ean izango da Kultur Etxean.

Tenconten antzerki taldearen *ingurumenua* emanaldia zuten aurreikusita hasiera batean. Baina taldearen arazoengatik, bertan behera gelditu zen emanaldia. *Egizu lo, Tartalo!* 4 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Ikuskizun honetan antzezleak, buruhandi bat, txinatar itzalak eta ipuin herrikoien magia topatuko dituzte haurrek.



Asteasun ere jaso zuten Oihanaren eta Tartaloren bisita pasa den hilean. E. E.

Istorioak zer kontatzen du,bada? Oihana Tartaloren kobazuloan dute preso. Tartalok jan ez dezan, era askotariko trikimailuak erabiltzen saiatuko da Oihana, eta azkenenean egokiena topatzen du, ipuinak kontatzea, hain zuzen ere. Tartalo lo dagoen bitartean, Oihana kobazulotik ihes egiten saiatzen da. Lortuko duen edo ez ikusteko aukera paregapea dute alegiar txikienek garu bertan.

Dar dar taldekoek Tartalo pertsonaiari hurbilpen bat egin nahi dute. Legorretako taldea gaztea da oraindik (2000. urtean sortu zen) baina *Alizia bitxikerien lurraldean* eta *Pinotxo* lana ekoiztu eta banatu ditu dagoeneko.

**Pertsona** edo **familia** boluntarioak behar dira

Arantzazuko Baketik zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak sinatutako hitzarmenaren bidez, Izeba Proiektua jarriko da martxan. Proiektu horren ardatza bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren osaba-izeba izateko prest dauden pertsona edo familia boluntarioen sarea sortzea da Gipuzkoan.

Helburu nagusia gazte horien integrazio hobeari laguntzea da, eta Izeba Proiektuaren helburu zehatza adin txikiko horiei familiarteko erreferentziak ematea (euskarria, maitasuna, babesa eta gertuko harreman sozialak zabaltzeko aukera eskaintzea).

Laguntzako familia-sare horrek aholkularitza espezializatuaren zerbitzua eta dieta ekonomikoa izango du euren egitekoa babesteko. Familia horien zeregina hauxe izango da: gurasoengandik urruti dagoen ilobarengatik, ikasketak direla-eta esaterako, hurbil dagoen osaba-izebak egingo lukeena.

Zeregin horrekin lotutako ekintza zehatzak, besteen artean, hauek izango dira: astean behin etxera bazkaltzera edo txango batera gonbidatzea, aldiro telefonoz deitzea, arazo pertsonalak edo ikasketekin lotura dutenak konpontzen laguntzea, hizkuntza ikasten laguntzea, erosketak egiten laguntzea, adin bereko gazteekin edo kirol-, kultur- eta aisialdi-ekintzekin harremanetan jartzea.

Beldurrari, aurreiritziei eta etiketa kolektiboei indarra kentzen saiatzea izango litzateke egitasmoaren beste helburu gehigarria. Hala-nola, mutiko horienganako giza sentsibilitatearen indarra garatzea da kontua, geure semealabak izan litezkeela barneratuz.

Informazio-hitzaldiak:

Azaroaren **17**a, asteartea, 19.00etan. **Urretxu**. Kultur Etxea
Azaroaren **18**a, asteazkena, 19.00etan. **Arrasate**. Kulturate Kultur Etxea
Azaroaren **21**a, larunbata, 11.00etan. **Donostia**. Gaztegune-CRAJ
Azaroaren **24**a, asteartea, 19.00etan. **Azpeitia**. «Sindikatu zaharra» Aretoa
Abenduaren **1**a, asteartea, 19.00etan. **Legorreta**. Udaletxeko Pleno Aretoa

informatu zaitez
943 25 10 05 www.izeba.org

baketik
izebaproiektua Gipuzkoa

# «Erakutsi nahi dugu kirolariek posible dutela ondo jatea elikadura astunetatik haratago»

**IÑAKI ARRATIBEL ›** Kirol medikua

**Osasuna »** 'Comer correr' liburua aurkeztu zuen atzo mediku tolosarrak; kirolarientzat dieta atseginak erakusten ditu.


I.T.

IÑIGO TERRADILLOS

*Comer correr* libruua aurkeztu zuen atzo Iñaki Arratibel mediku tolosarrak. Kirolzaleei eta batez ere profesionalei laguntzea du helburu lan honek, kirol aholkularitzaren bidez, dieta atseginak emanez. Arratibel izan da egilea, eta sukaldari nahiz kirolarien laguntza izan du lana egiterakoan.

**Zer du helburu nagusi bezala lan honek?**

Edozein mailako kirolariei aholkatzea edo laguntzea lortu nahi da. Izan ere, orain arte kirolarientzat gomendatu izan den elikadura astuna edo aspergarria egin izan da, eta horregatik eurei zuzendutako gastronomia planteatu dugu, ondo prestatutako errezeta sinple batzuekin.

**Hainbat laguntzaile izan dituzu bidean.**

Nik buruan nuen nola egin liburua. Hori egiteko sukaldari bat behar nuen. Fronton jatetxeko Roberto Ruizekin hitz egin nuen, eta berari ideia asko gustatu zitzaion. Hortik aurrera prestatu beharreko plateretan pensatzen jarri ginen. Gero, kirolari batzuen iritzia ondo etorriko litzatekeela ikusi genuen, eta hainbat kirolarirekin jarri ginen harremanetan, Abraham Olano eta Marta Dominguez, esaterako.

**Norberak egiten duen kirola aintzat hartu behar al da?**

Kirol bakoitzak bere desberdintasunak ditu. Edozein kirolarientzat dago zuzendua, baina kontuan hartu behar dira norbere berezitasunak, eta horiek markatu egin ditugu.

**Beste ikuspegi bat zabaldu duzu.**

Landu egin nahi izan dugu elikadura. Guk erakutsi nahi izan dugu ondo jatea posible dela beste era batera eginez, errezeta erraz hauek jarraituz, adibidez. Orain arte, pasta esaten zenean pasta txuria hartzen zen kontuan, eta berdin gertatzen zen arrozarekin. Hori aberastu nahi izan dugu.

**Hutsune hori nabaritzen zenuen orduan.**

Orain dela hainbat urte, Alemanian nintzela, nire nagusiak gisa honetako liburu bat egin zuen. Euskaratzeko esan zidan, baina hori lurralde bakoitzera egokitu beharko litzatekeela pentsatu nuen. Beraz, ideia hori hor izan dut. Gainera, txirrindularitzan-eta askotan ikusi izan dut, pasta eta arroza, egunero janari ia berdina jaten dutela. Beraz, konturatu naiz beste era batera egingo bagenu dietak erakargarriagoak izango liratekeela, eta nolabait hutsune hori betetzea nahiko nuke.

# Deabru Beltzak taldearen kale antzerkia izango da bihar ikusgai

**Kultura »** Sortzez Garbiaren plazan eta Triangulon izango da ikuskizuna 17:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Tolosako Dendarien ekimenez eta Eusko Jaurlaritzaren eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, larunbatetan ekintza desberdinak antolatzen dituzte bereziki gaztetxoei zuzenduak, komertzioa sustatzeko helburuz. Biharko ere prestatu dute ikuskizuna. Hain zuzen ere, Deabru Beltzak taldea izango da *Badeé Placé* emanaldia eskainiz.

Bilbotik datorren taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du, 17:00etatik aurrera, Sortzez Garbiaren plazan eta Triangulon. Euria egingo balu bertan behera geratuko litzatekeela emanaldia eta beste egun baterako atzeratu azaldu dute antolatzaileek, sua erabiltzen baitute dantza egitearekin batera. Lan berria erakutsiko dute biharko ikuskizunean, «kaleko dantza, suarekin eta erritmoarekin jolastuz». Hala, ikuskizuneko protagonistak pertsonaia bereziak izango dira, samurai gerlariak gogorarazten dutenak.

Euskal Herriko hainbat antzerki taldetik gentozen aktoreek sortu zuten 1996an Deabru Beltzak kale antzerkia. Ordutik, hamar antzezlan aurkeztu dituzte. Euskal Herriko txoko ugaritan lan egiteaz gain, gure mugetatik at ere izan dira, «Euskal Herriko talderik nazioartekoenean bilakatuz».

# Carlos Peñak Sella ibaian burutuko du hurrengo erronka

**Kirola »** Arriondasetik Ribadesellaraino egingo du igeri, bihar, ohiko moduan bizkarrez; 19 kilometroko bidea egingo du.

ERREDAKZIOA

Karlos Peña abenturazale tolosarrak bere erronkekin jarraitzen du, eta bihar Sella ibaia igaroko du igerian, bederatzigarren aldiz, eta ohiko moduan, bizkarrez igeri eginez.

Hain zuzen ere, Arriondasetik Ribadesellaraino egingo du igeri Peñak. 19 kilometroko bidea izango da orotara, eta ur hizoztuei eta tenperatura hotzei egin beharko die aurre. Eguerdian ekingo dio igerilariak erronkari, 12:00etan.

Karlos Peñak 20 urte daramatza horrelako erronkaka gainditzen.


Karlos Peña zortzigarrenez erronka Sella ibaian gainditu zuenean. HITZA

Tolosarrak bere burua, «abenturazale eta ekologiaren eta bakearen aldeko aktibistatzat» du, eta hainbat ekimen burutu ditu helburu horiekin.

Burutu dituen erronken artean, Eskozian Ness lakuan eginikoa, Hego Amerikako Titicacan, Bosniako Neretvan, Jordaniako Itsaso Hilan, edota Venezuelako Maracaibo lakuan. Ondorioz, «bizkarrez igeri eginez erronka hauek burutu dituen bakarra da munduan abenturazale tolosarra».

TX saridunak

PAPIRO...FLEXIA
Breakdance multimedia show emanaldirako
Gaur
20:30ean
Tolosako Leidorren
· Geno Otamendi (Alegia)
· Maria Jesus Galarza (Ibarra)
sarrerak **leihatilan** harpidedun txartelarekin

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren baitan ospatuko den **bertso saiorako**
Bihar
17:30ean
Tolosako Usabal Kiroldegian
· Erniope Bidaiak (Villabona)
· Garbiñe Mujika (Villabona)
· Maite Aizpuru (Ibarra)
sarrerak **leihatilan** harpidedun txartelarekin

sarrerak
bi sarrera pare
**ASPEK** antolaturiko binakako partidetarako
aspepelota.com
Azaroak 16 Astelehena
16:30ean
Tolosako Beotibar pilotalekuan
sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

harpidedunen TXOKOA hitza


Argazki lehiaketan parte hartu duten argazkiak ikusgai. HITZA

# Argazki lehiaketako argazkiak ikusgai daude kiroldegian

**Anoeta** » 21 argazkitatik, 8 saritu ditu Udalak; 2010eko egutegian agertuko dira. Kirol Astea dela-eta ikusgai daude.

E. MAIZ

Aste honetan, Kirol Astean murgilduta daude anoetarrak. Ekintzen artean, argazki lehiaketako argazkien erakusketa jarri dute.

Erakusketa kiroldegian dago datorren astelehena bitarte. Argazkiak ikusteko honako ordutegia dago: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era eta larunbatean 09:00etatik 13:00etara. Nahiz eta saritua ez izan, Udalak parte-hartzaileak zoriondu nahi izan ditu eta eskerrak eman nahi dizkie lehiaketan parte hartu dutenei.

### Zortzi argazki sarituta

Argazki lehiaketan denera 21 argazki jaso dituzte eta horietatik, 8 izan dira saritutak. 2010eko udal egutegian azalduko dira eta argazkietan parte hartzeko gaia, kirola izan zen.

Hauek izan dira saritu dituzten argazkiak: *Xisterak* argazkia, Mikel Larrion, *Elurretan* argazkia Jon Ugartemendia, *Sega apustua* argazkia Igor Urkola, *Eskuekin* argazkia Ekaitz Errazkin, *Nesken soka-tira* argazkia Leire Gonzalez, *Rafting* argazkia Alain Luisa, *Osasuna munduko ondasuna* argazkia Joana Goikoetxea eta *Non gogoa, han zangoa* argazkia Maite Goikoetxearena. Bestalde, nahiz eta saridunen artean ez egon, egutegiaren kontrazalean azalduko den argazkia, Maite Goikoetxearen *Gutxika gutxika asko egiten da* argazkia izango da.

# Etzi Aizkardi elkartearen II. Argazki Rally-a izango da

**Villabona** » Bigarren urtez Aizkardi Mendi Elkarteak antolatu du eta edonork parte hartzeko aukera izango du.

ENERITZ MAIZ

Aizkardi Mendi Elkarteak, etzirako II. Argazki Rally-a antolatu du. Mendian zehar izango da eta 4 ordu izango ditu parte-hartzaileak argazkiak ateratzeko.

Bederatzi kilometro dituen mendi ibilbide erraz bat prestatu dute argazkiak ateratzera joateko. Gaia egunean bertan jakinaraziko dute eta natura edota mendiarekin lotutakoa izango da. Izena egunean bertan eman beharko da elkartean eta guztiz doakoa izango da. Adin mugarik ere ez dago partehartzaileentzat.

### Betebeharreko baldintzak

Argazkiak, analogikoak edota digitalak izan daitezke eta koloretan zein zuri-beltzean aurkeztu ahalko dira. Argazkiei ukitu gutxi batzuk onartuko zaizkie eta inolaz ere ez ukitu grafikoak.

Behin saioa amaitu ostean, ateratako argazkietatik hiru aukeratu beharko ditu. Argazkiak 20x30eko papereko formatoan eta 30x40eko kartulina beltz batean eta aurrean izenburua idatzita aurkeztu beharko dira. Kartazal batean izena, abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa agertu beharko dira. Lanak, beranduenera azaroaren 21ean, larunbata, eguerdiko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Tolosako Karlis Argazki dendan.

### Sariak eta erakusketa

Lehen hiru argazkiak izango dira sarituak eta beste bat publikoak aukeraturikoa izango da. Lehenak, 150 euro, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 75 euro jasoko ditu. Erakusketara doan publikoak, argazkirik hoberena aukeratzeko aukera izango du.

Sari banaketa azaroaren 27an egingo da, 21:00etan Gurea zine aretoan. Aizkardik antolatzen duen Mendi Asteko azken proiekzioaren ostean. Aurtengoa 26. Mendi Astea izango da eta azaroaren 23tik 29ra izango da.



# Gazteen eguna, parranda giroan

**AMASA** ● Gazteen eguna ospatu zuten amasarrek eta egun luzea izan zuten. Jan eta edanerako denbora hartu zuten baina baita, hankak berotu eta dantza egiteko ere. Goizeko 06:00etan gosaltzeko elkartu eta bazkari eta afaria izan zituzten. Egunean zehar, kalejiran eta jai giroan ibili ziren baserriz baserri eskean. Arratsaldean, besteak beste, plazan Soka-dantza eta Aurreskua dantzatu zituzten. ENERITZ MAIZ

## Laburrak

### Pirritx eta Porrotx ikustera joateko autobus zerbitzua

**AMASA** ● Villabonako Udalak Pirritx eta Porrotxen emaldirako autobusa jarri du. Igotzeko, 16:30etik 17:15era kiroldegian eta txermingo aparkalekuan geldituko da eta jaisteko 18:30etik 19:30etara izango da.

### Juanito Oiarzabalen proiekzioa Mendi Astean

**ASTEASU** ● Ospatzen ari diren Mendi Astearen baitan, gaur 20:00etan udaletxeko pleno aretoan Juanito Oiarzabalen mendizalearen *Dos Historias de superacion personal K2+Everest* proiekzioa izango da.






# Filmak, hitzaldiak eta tailer ugari Kultur Truke Hamabostaldia ospatzeko

**Ibarra »** Datorren asteartean, hilak 17, hasi eta hilaren 29an bukatu da Ekuador eta Saharako jakien dastaketarekin.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Kultura Sailak Kultur Truke Hamabostaldia antolatu du berriz ere Ibarraren eta Saharako Tichla eta Ekuadorreko izen bereko herrien arteko senidetzea baliatuz. Datorren asteartean, hilak 17, hasiko dute eta hilaren 29ra arte iraungo du, nahiz eta inaugurazio ofiziala astelehenean izango den, 19:00etan Benito Izagirre kultur etxean. Aipatu herrialdeetako kultura hobeto ezagutzeko parada izango da Ibarran antolatutako ekitaldiei esker, tartean filmen eta film laburren emanaldiak, hitzaldiak eta ipuin kontaketa saioa.

**Erakusketa**

Hilaren 17tik 27ra, erakusketa bat ikusteko aukera ere izango da Kultur Etxean (10:30-13:00 eta 15:30-21:00).

Erakusketan Ekuadorreko, Saharako eta Ibarrako lanak bilduko dituzte Ibarrako Vanessa Alzateren, Ekuadorreko Galo Urbina eta Gonzalo Perezen eta Saharako Beibat Abdalahi eta Tolosaldea Sahararekin elkarteen lanei esker.

**Bi film eta film labur bat**

Eskainiko dituzten filmeei dagokionez, *Los baules del retorno* Maria Mirok saharar erbesteratuei buruz eginiko dokumentala da. Saharak jasaten duen Marokoko gobernuaren zapalkuntza du hizpide, izan ere Miroren ustez, espainiar gobernuak zor historikoa du sahararrekiko. *Paella con aji* filma, berriz, Ekuadorreko Galo Urbinarena da. Kultura latindar eta espainiarra erakusten duen lana da, asmoa, dena den, ez omen da XXI. mende hasierako Espainiaren karikatura egitea, emigrazioa kontutan hartuta, fikziozko pertsonaiak benetakoak bihurtzea baizik.

*51º* film laburra Jose Requejo zuzendariarena da. Lanak bi zati ditu: lehenengoan Saharako kanpamenduetako bizitzari buruzko informazioa ematen du egileak, eta bigarrengoan, kutsu dramatikoa ematen dio lanari tearen zeremonia aitzakitzat hartuta.



Iaz ere Ekuadorreko dantzak ikusteko aukera izan zen. IYUYA URRUTIA

**» EGITARAUA**

**Hilak 17, asteartea**
■ **19:30.** *Ecuador: Region Sierra Norte* izeneko dokumentalaren emanaldia Benito Izagirre kultur etxean.

**Hilak 19, osteguna**
■ **17:30.** Saharako ipuin kontaketa saioa Miriam Mendoza ipuin-kontalariaren eskutik Benito Izagirre kultur etxean.

**Hilak 20, ostirala**
■ **19:30.** Jose Requejo zuzendariaren *51º* izeneko film laburra eskainiko dute Benito Izagirre kultur etxean.

**Hilak 21, larunbata**
■ **11:00-14:00 eta 16:00-19:00.** Areto-futboleko txapelketa Belabieta kiroldegian: Ibarra, Ekuador, Sahara eta Ukrania.

**Hilak 24, asteartea**
■ **19:30.** Ibarra Misio Taldeko Izaskun Azurmendiren eta Josune Agirreren *Baba: herritarren iniziatiba, promozioa eta erantzunkizuna animatu nahian* Benito Izagirre kultur etxean.

**Hilak 25, asteazkena**
■ **19:15.** Saharari buruzko *Los baules del retorno* izeneko filmaren emanaldia Benito Izagirre kultur etxean.

**Hilak 26, osteguna**
■ **17:30.** Henna tatuaien eta idazkera arabaiarraren tailerrak zein tea dastatzea Tolosaldea Sahararekin taldeari esker Kultur Etxean.

**Hilak 27, ostirala**
■ **19:30.** *Paella con aji* izeneko filmaren emanaldia Kultur Etxean.

**Hilak 29, igandea**
■ **12:00.** Ekuadorreko eta Saharako jakien dastatzea San Bartolome plazan.



6. jardunaldiko Aiako partidetan ateratako irudia. HITZA

# Emakumea Pilotariko 7. jardunaldiko partidak, bihar

**Lizartza »** Lizartzan eta Getarian izango da finalaurreko ligaxkako azken kanporaketa 16:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Bihar jokatuko dituzte Lizartza eta Getariako pilotalekuetan ezker hormako IV. Emakumea Pilotari Txapelketa-Kutxa Sariko 7. jardunaldietako partidak 16:00etatik aurrera.

**Lizartzako partidak**

1. mailari dagokionez, final aurreratua jokatuko dute Lizartzan, jaialdiko 2. neurketan. Etxegia-Arozena eta M.Zabala-Mendizabal bikoteek, hala ere, hilak 21eko finalerako txartelak aurretik poltsikoratuta dituzte ligaxkan partida bakar bat ere ez baitute galdu. Gainerako bikoteek 3. postutik atzera geratzeko jokatuko dute, oreka dezentea baitago oraindik ere euren artean.

Getarian, aldiz, bigarren mailako 2. eta 3. partidak finalerdietakoak izango dira. Finalerdietan A multzoko lehen bikoteak B multzoko bigarrenaren aurka ariko dira, eta, alderantziz, Bko lehenak Ako bigarrenaren aurka.

Multzo buruek ligaxkan partidarik galdu gabe bukatu badute ere, biharko partidan hutsetik hasi beharko dute denek, beraz, ez dago oso argi nork eskuratuko dituen finalerako bi txartelak.

## Laburrak

**San Donato-Beriainera joateko ibilaldia igandean**

**ALTZO ●** Altzoko Udalak San Donato-Beriainera (1.493 metro) igoetzeko ibilaldia antolatu du «sasoiko jendearentzat». Ibilaldia igandean izango da eta «Sakanako begiraleku aparta» dela nabarmendu du Udalak. Irteera 08:30ean izango da plazatik.

**Mintegiagaren liburuaren aurkezpena Gaztetxean**

**IBARRA ●** Jon Mintegiaga ibartarrak Txalaparta argitaletxearekin kaleratu berri duen *El Filtro* liburua aurkeztuko du gaur, 19:30ean Ibarrako Gaztetxean. Gaztetxeak antolatutako Kultur Astearen baitan egingo du aurkezpena. 22:00etan *Las trece rosas* filma eskainiko dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com

Astearte arratsaldeko 15:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com / 943-65 56 95 telefono zenbakira

## 1 Etxebizitza

### 1.1 SALGAI

**Aizarnazabal.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai Aizarnazabalen. Prezio oso interesgarria (180.000 euro). Behe solairua izan arren, argitsua da. 2 logela ditu, komuna, sukalde amerikanoa eta egongela-jangela. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. Altzari eta guzti dago salgai. Ingurune lasaian dago. 637-51 33 04 telefonora deitu.

**Ataun.** Baserria salgai Ataunen. 45 urteko 65.000 metro pinudi, eta 8.300 metroko soroak. Harremanetarako: 943-13 36 88.

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Beasainen: 105 m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektrogailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki ta info gehiago *www.ttiki.com/6609* Telefonoa: 656-73 11 43

**Berriatua.** Etxebizitza salgai Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 94-616 64 19 edo 94-613 90 56 telefonora.

### 1.2 ERRENTAN EMAN

**Gasteiz.** Gasteizen pisua alokatzen da, altzariz hornitua, 2 logela, sukaldea, jangela, egongela, igogailua eta berogailu zentrala. Txagorritxutik eta Eusko Jaurlaritzatik gertu. Telefonoa: 665-75 20 46.

**Getaria.** Egoera oso onean dagoen apartamendua alokatzen da. Guztiz amueblatua dago eta bizitzeko prest. Interesatuek idatzi *etxebila@hotmail.com* helbidera.

### 1.3 ERRENTAN HARTU

**Gernika-Lumo.** Neska langile gazte bat naiz eta etxebizitza bila nabil Gernika-Lumon. Gehienez 400 euro ordain dezaket. Telefono zenbakia: 626-71 71 66. E-posta: *tarixe69@hotmail.com*

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Telefono zenbakia: 658-70 19 53.

### 1.4 PISUA KONPARTITU

**Donostia.** Oso ondo kokatutako etxebizitza batean. Etxean pertsona bakarra bizi da. Ohe bikoitza, ikasteko mahaia eta armarioa. Ekainera arte, besterik ez. Deitu 20:30etik aurrera 669-96 23 55 zenbakira.

**Getaria.** Pisukide baten bila gabiltza. Pisu handi eta guztiz amueblatua, egoera oso onean. Interesatuek idatzi *etxebila@hotmail.com* helbidera.

## 2 Motorra

### 2.1 SALGAI

**Opel Corsa salgai.** Opel Corsa 1.7 D salgai. Interesatuek 696-23 74 16 telefonora deitu.

## 3 Garajeak

### 3.1 SALGAI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635-20 81 22

### 3.2 ERRENTAN EMAN

**Zarautz.** Garajea salgai edo alokagai Zarautzen, Aritzbatalde kalean. Interesatuek deitu: 943-13 13 43

### 3.3 ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Telefonoa: 665-73 51 59

## 4 Lana

### 4.1 LAN BILA

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, bai zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 606-42 64 14

**Azpeitia.** Lan bila nabil. Azpeitian, denda edo kafetegi batean lan egitea nahiko nuke. Helbide elektronikoa: *eargia@gmail.com* Telefonoa: 647-08 10 15 Ainhoa.

**Bidasoaldea, Oarsoaldea - Lapurdi.** Emakume euskaldun eta arduratsua, frantsesez eta gazteleraz dakiena. Haurrak zainduko lituzke goizez zein arratsaldez, baita etxeko lanak egin ere. Gidabaimena eta autoa baditut. Deitu(+0034)622-06 33 48 – (+0033)559-56 05 21 *itziar101@hotmail.com*

**Donostia.** Nikaraguako mutil bat naiz eta Donostian bizi naiz. Bertan edo inguruko herrietan lanen bat egiteko prest nago, adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. Interesatuek deitu 943-65 40 57 telefonora.

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest. Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. 616-38 31 64

**Donostialdea.** Haurrak zaindu edo klase partikularrak emango nituzke Donostin bertan edo inguruan. Umeekin esperientzia dut begirale bezela baita partikularrak ematen ere. Biologian lizentziatua eta EGA titulua duen neska bat naiz. Telefonoa: 679-28 08 28

**Gernika-Lumo.** Txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Deitu telefono hauetara: 946-25 70 80 edo 676-60 75 68

**Gernika-Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645-70 40 20 (Marisa).

**Goierri.** 55 urteko emakume esperientziaduna eta urte askoan ohitua,arratsalde eta gauetan pertsona helduekin edozein lan egiteko eskaintzen da. 663-95 73 89.

**Tolosa.** 49 urteko autonomoa naiz. Nik lokala jartzen dut eta zuk ideiak edo lana baduzu, harremanetan jarri mesedez. Telefonoa: 943-11 73 43

**Tolosaldea.** Bigi garbitasunak: alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze: 638-94 46 04 eta Belen: 695-70 82 71.

**Tolosaldea.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientzi handikoa eskaintzen da egunez zein gauez adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko. Gida baimena eta autoa baditut. Interesaturik egonez gero deitu lasai eguneko edozein ordutan telefono zenbaki hauetara: 943-57 74 09 edo 680-24 42 81. Erreferentziak ere baditut. Posta: *mariapilargarmendia@gmail.com*.

**Tolosaldea.** Neska senegaldarra. Adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez interna sartzeko. Haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago. Interesatuek deitu 943-65 40 57.

**Zarautz.** Andre arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, plantxa edo bestelako lanetarako. Asteazken eta ostiraletan goizez lan egiteko prest. Harremanetan jartzeko, deitu 634-45 91 59.

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako, asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, baserriko lanak, mahastietan eta abar. 658-73 08 08

### 4.2 LANGILE BILA

**Eibar.** Zerbitzaria behar da Eibarko taberna batean. Telefonoa: 943-25 40 60.

**Eibar.** Andra euskalduna behar da nagusiak zaintzeko. Interna. Gidatzeko karnetarekin. Telefonoa: 649-16 72 08.

**Eibar.** Zerbitzaria behar da Eibarko taberna batean. Telefonoa: 685-73 84 35

**Eibar.** Akademia batean irakasleak behar dira: bat Matematikak eta Fisika eta Kimika emateko eta beste bat Ingeleserako. Telefonoa: 652-76 32 64 edo *centrobart@gmail.com*

**Eibar.** Akademia baterako irakaslea behar da (Inglesa, Matematikak, Fisika eta Kimika, eskolarako laguntza). Telefonoa: 652-76 32 64 edo *m.urteagamv@hotmail.com*

**Goierri.** Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609-41 38 97

## 5 Irakaskuntza

### 5.1 EMAN

**Donostia.** Panderoa, kainabera eta txaramelak. Asteazkenero 19:30etik 20:30era, Donostiako Arrano Beltza Euskal Tokian (Ikatz kalea, 10) Informazio gehiago: *arranokoikastaroak@gmail.com*

**Gernika.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak ematen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656-77 20 12 (Nahia)

**Irun.** Kemen euskal dantza taldeak fandango, arin-arin eta plaza dantzen ikastaroa antolatuko du urriaren 10ean hasi eta abendura bitarteko larunbatetan. Interesatuok hurrengo telefonora dei dezakezue informazio eske: 667-55 36 98

**Lea-Artibai.** Lehen hezkuntzan diplomatua naiz, euskalduna eta auto propioarekin. Umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest nago. Esperientzia daukat. Harremanetarako: 615-72 72 86

### 5.2 HARTU

**Arrasate.** Mutiko bati 6. mailako eskola partikularrak emango dizkion neska behar dugu. Eskola laguntza, etxeko lanak egin eta antzekoetarako. Kristina. 617-36 67 96

## 7 Denetarik

### 7.1 SALGAI

**Altzariak.** Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. 627-96 19 22

**Altzariak salgai.** Etxe aldaketagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxeko etxetresnak. Denak batera (prezio hobean) zein banaka. Oreretan. Informazioa eta argazkiak ikusteko idatzi mezua: *mikel_muebles@live.com* helbidera edo deitu 943-00 23 11 telefonora.

**Bideokamera.** Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak 5mp egiteko aukeran eta bideoa HD formatuan. Txikia, oso erraza erabiltzen, egoera ederrean eta osagarri guztiekin. Bi bateria oparitzen ditut. 200 euro. 636-43 85 40

**Dendako mostradorea eta hozkailua.** Dendako mostradorea eta hozkailua salgai. Hots egin 948-46 07 65 telefonora.

**Gasolio-galdara.** Osagarri guztiekin. Roca modeloa. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Baserrirako egokia. Prezio negoziagarria. 943-79 34 74 edo 616-23 81 74

**Hiztegia.** Lur Hiztegi Entziklopedikoa salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia-ia erabili barik. 625-83 84 13

**Ibiltzeko zinta elektrikoa.** Ibiltzeko zinta elektrikoa salgai. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652-76 25 41

**Kanarioak salgai.** Interesatuek deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635-75 54 53

**Karro-kapazoa.** Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649-00 53 42

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 salgai, 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660-33 77 16 telefonora.

**Monozikloa saltzen dut.** Monty etxekoa. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605-73 07 77

**Mugikorra.** Nokia 6124 telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 30 euro. 617-13 17 51

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650-96 23 08

**Pedalera.** Gitarra akustikorako pedalera salgai. Erdi prezioan. Telefonoa: 943-77 19 20

**PlayStation 2 saltzen dut.** 50 joko, memoria-txartela eta urrutiko-kontrolarekin. 150 euro. 659-68 06 06

**Pottoka arrazako bi behor salgai.** Biak pottoka arrazako zaldiarekin estalita daude. Telefono zenbakia: 605-74 37 96

**Routerra.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. 608-36 26 07

**Sofa-ohea.** Kanpoko neurriak 1,97x91x92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekitzekoa. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. Telefonoa: 616-09 46 34

**Su egurra salgai.** 20,30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615-75 57 62

**Untxiak.** Lau untxi salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera. Telefonoa: 665-74 91 27

### 7.2 GALDU

**Bi giltza Etxarrin.** Bi giltza galdu dira Etxarri Aranatzen, biak uztai batean bildurik. Hots egin 699-75 04 50 telefonora.

**Eraztuna Oñatin.** Urriaren 31n eraztuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbidea artean. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. 943-78 06 34 edo 656-74 53 90

**Elefante-panpina.** Joan zen urriaren 31n, 13:00ak aldera, Tolosako Arostegieta kalean, Iratiren elefantea (panpina) galdu genuen. Aurkitu duenak, deitu dezala mesedez 657-70 48 78 telefono zenbakira. Mila esker.

**Mendiko bizikleta Arbizun.** Mendiko bizikleta bat galdu zen Nafarroa Oinez egunean Arbizuko Kale Nagusian 19:00ak aldera. Argia, 24 pulgadetakoa eta beltza. Deitu 626-75 19 19 telefonora (Martin).

**Nintendo Ds grisa.** Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko eta guzti. Aurkitu baduzue mesedez 685-71 75 62 telefonora deitu.

### 7.3 AURKITU

**Argazki kamara digitala.** Tolosan, Emeterio Arrese inguruetan, argazki kamara digitala aurkitu da. Harremanetarako telefono zenbakia: 943-65 56 95

**Iveco B365 erreferentzia duen giltza.** *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* egunkariaren egoitzan IVECO B365 erreferentzia duen giltza bat azaldu da. Galdu duenak dei dezala 943-65 56 95 telefono zenbakira.

**Txakur txiki bat Lizarragan.** Txuria da eta 3 hilabete ingurukoa. Lepoko polit bat dauka. Galdu duenak deitu dezala 686-92 51 95era.

### 7.4 EMAN

**Katakume emea.** Katakume eme bat ematen da opari. 685-79 07 61

### 7.5 HARTU

**Baratzerako lur saila Getaria inguruan.** Getaria inguruan baratzerako lur sail bat erosi edo alokatuko genuke. 652-702 828 telefonora deitu.

**Bigarren esku klarinetea erosiko nuke.** Bigarren esku klarinetea erosiko nuke. Zuriñe. 627-22 45 79

**Lur saila Oñatin.** Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. 609-11 72 96

**Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan.** Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Deitu 634-46 41 69 telefonora.

**Zilarra.** Zilarra erosiko nuke. Saltzeko badaukazu, deitu zenbaki honetara: 656-75 76 98

### 7.6 HARREMANAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Mutil bila.** 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal balitz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali SMS bat hona. Nire aldetik, diskrezio osoa. 665-75 58 74

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako, interesatuek idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbidera

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Norbaiti autoa konpartitzea interesatuz gero, deitu. 635-20 33 14

### 7.8 ERRENTAN HARTU

**Errentako taberna bila Debagoienan.** Taberna hartuko nuke errentan. 638-10 29 63

**Errentako taberna bila Debagoienan.** Taberna hartuko nuke errentan. 677-05 39 06

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
Senpere,7 (zentru komertziala) BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

Etxebila higiezinak
9 4 3 - 4 4 6 1 6 6
ALOKAIRUAN
**ERRONDO GAINA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bistak. 850€
**ZENTROA** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Oso polita. 1.200€
SALMENTAN
**AMARA** Madril etorb. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 21.800.000
**AMARA** Santxo Jakituna. Azkena 50m2 terraza. 2 logela. Eguzkitsua. 57.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000
**EGIA** Ametzagaña. Haseran. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Igogailua. 36.950.000
**GROS** Txofre k/. 9 urtetako apartamentua. Igogailua. Berria. 49.750.000
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Polita. 38.900.000
**MARTUTENE** Balkoia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 34.300.000
**ALTZA** Oso polita. 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 36.990.000
**ALZA** 3 logela, suakaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 28.950.000
**LEZO** 75m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Eguzkitsua. 32.000.000
**LASARTE** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 32.950.000
**PASAI ANTXO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 25.950.000
**ERRENTERIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 36.900.000
**HERNANI** 2 Atiko herri erdian. Igogailua. Berritzeko. 21.000.000 bakoitza.
www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
**Webgunea:** www.tolosaldekohitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**


## A Agenda

### Deialdiak

- **Asteasu.** Mendi Astea: Juanito Oiarzabalen *K2+Everest gainditze pertsonaleko bi istorio* udal batzar aretoan 20:00etan.
- **Anoeta.** Kirol Astea: pilota txapelketa frontoian (17:30-20:30).
- **Amezketa.** Ardo kata gela balioanitzan 20:00etan, zahagi-ardoa frontoian 21:00etan; ondoren Itzel taldearekin berbena.
- **Berastegi.** 16:30ean eskolako ganbaran DVD emanaldia haurrentzat; eta 22:00etan eskolako gimnasioan Bertso-Trama.
- **Ibarra.** Gazte Asanbladaren XVI. urteurreneko Kultur Astea: 19:30ean Jon Mintegiagaren *El filtro* liburuaren aurkezpena eta 22:00etan *Las trece rosas* filma.
- **Villabona.** Jose Ramon Soroizen *Sommer jaunaren istorioa* antzezlana Gurean 20:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

'Egunkaria libre!' aldarrikatzeko ekitaldi handia antolatu dute azaroaren 28an Donostiako Kursaal jauregian, hainbat musikari eta talderen laguntzarekin; HITZAren egoitzan eros daitezke sarrerak.

# Elkartasuna eta laguntza, batera

ERREDAKZIOA

*Egunkaria libre!* aldarrikatzeko ekitaldi handia antolatu dute azaroaren 28rako Donostiako Kursaal jauregian, eta hainbat musikariren eta musika talderen babesa izango du ekimenak.

Auzipetuei babesa adierazteaz gain eta epaiketa salatzeaz gain, auziak dakartzan gastuak leuntzeko dirua biltzea ere bada ekitaldiaren helburua, Peio Ospital kantariak atzo hedabideen aurrean nabarmendu zuenez.

Horregatik, ekitaldirako sarrerak 18 euroan jarriko dituzte salgai, gaurtik aurrera, zortzi HITZA egunkarien egoitzetan, eta Elkar liburu dendetan. Oraingoz, leku horietan soilik eskuratu ahal izango dira sarrerak.

### Musika, bideoak, adierazpenak

Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria eta Martxelo Otamendi auzipetuek eta Peio Ospital kantariak eman zuten atzo ekitaldiaren berri, hedabideen aurrean, Donostian.

Atzoko agerraldian zehaztu zutenez, eskualdeko Jaime Otamendi eta Arantxa Iturbe kazetariak izango dira ekitaldiaren aurkezleak.

Ekitaldian, auzipetuak babesteko borondate hutsez parte hartuko duten hamaika musikariek eta taldeek abesti bana kantatuko dute, eta batetik besterako tarteetan elkartasun mezuak entzun ahal izango dira, bideoen eta gainerako euskarrien bitartez. Harkaitz Cano idazleak eta beste gonbidaturen batzuek ere hartuko dute parte ahalik eta jendetsuena izatea nahi den ekitaldian.

Egunkaria auziaren nondik norakoak biltzen dituen bideoa ere ikusi ahal izango da Kursaal jauregian, eta auzipetuek ere bertatik bertara emango dute gaur egungo egoeraren eta epaiketaren atariko nondik norakoen berri.

Amaitzeko, musikari eta gonbidatu guztiak elkarrekin agertuko dira oholtza gainean.



Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria eta Martxelo Otamendi auzipetuek eta Peio Ospital kantariak aurkeztu zuten atzo ekitaldia. WWW.BERRIA.INFO

### Herri batzordeak lanean

Kursaal jauregiko ekitaldi handia, gastuei aurre egiteko dirua biltzeko izango bada ere, epaiketaren atarian batean eta bestean auzia salatzeko eta auzipetuei babesa adierazteko egiten ari diren ekimenen baitan kokatzen da.

Zehazki, azken asteotan, ostiralero elkarretaratzeak egiten ari dira hainbat arlotako lagunak. Aktoreak, idazleak, kirolariak, politikariak, musikariak edota bertsolariak bildu izan dira Donostian, Gasteizen edota Iruñean. Gaur bertan, abokatuek elkarretaratzea deituta dute Donostiako bulebarrean, 12:00etan, ohi bezala, auzia salatu eta auzipetuei babesa adierazteko.

Epaiketa hurrengo asteotan hasiko dela aurreikusita, herrietan ere hasi dira *Egunkaria libre!* aldarrikatzeko eta dirua biltzeko ekimenekin. Elastikoak saltzen, ekitaldiak antolatzen, hitzaldiak ematen eta antzekoetan ari dira batean eta bestean. Eskualdean, Martxelo Otamendi eta Begoña Zubelzu daude auzipetuen artean. Tolosaldeko batzordeak atzo bertan egin zuten batzarra.

### » MUSIKARIAK

- Anari.
- Anje Duhalde eta Niko Etxart.
- Mikel Urdangarin eta Josu Zabala.
- Pantxoa eta Peio.
- Gorka Urbizu.
- Oskorri.
- Erramun Martikorena eta Jean Mixel Bedaxagar.
- Ken Zazpi.
- Amaia Zubiria eta Txomin Artola.
- Rafa Rueda.
- Urko.
- eta beste zenbait gonbidatu.

### Ekitaldia

- **Eguna.** Azaroak 28, larunbata.
- **Lekua.** Kursaal jauregia, Donostia.
- **Ordua.** 19:00.

### Sarrerak

- **Prezioa.** 18 euro, ekitaldiko gastuak ordaintzeko, eta Egunkaria auziko epaiketak ekarriko dituen gastuei aurre egiten laguntzeko.
- **Salmenta puntuak.** Hitzen egoitzak eta Elkar megadendak.

### Informazioa

- **'www.egunkaria.info'.** Azaroaren 28ko ekitaldiari eta Egunkaria auziari buruzko informazioa osatua biltzen du webguneak.





**Pirritx, Porrotx eta MariMotots**

IRRIEN LAGUNAK CDa
16 €



*Euskal pirata bihurriak gara; zatoz gurekin irriak abordatzera!*

*Noiz eta nola egin eskaria?*
**Azaroaren 30 arte:**
- 902-82 02 01
- harpidetza@hitza.info

*Bidalketa gastuak doan*



PIRATAK
DVDa
18 €

hitza .info